

# B

BARREN

TOKIKOM

# Ertzil erre da



IRTEERAK



# ZARAUZERA GOAZI!

SURF IKASTAROA



APIRILAREN 7tik 10era

Izen ematea: otsailaren 23tik 27ra arte

LH 3-6

Izen-ematea:

-Elgoibarko Izarraren bulegoan

e-posta: [aisialdia@elgoibarkoizarra.eus](mailto:aisialdia@elgoibarkoizarra.eus)

-Internet bidez: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)



ATXUTXIAMAIIKA

Prezioa: 91€



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183\12  
UZURI

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### HORTZ KUNIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

177\12  
fisió&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak (errehabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekanika (kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628

## Erretratu zaharra



### 1968

Aste honetako erretratu zaharra Maria Victoria Jauregik ekarri du BARRERENA. 1968. urteko inauterietan aterata dago, San Frantzisko iturri inguruan. Argazkiko emakumeek ohitura zuten lagunartean mozorrotzeko, eta urte askoan jarraitu zuten ohitura horrekin. Ikus ditzagun zein diren argazkian ageri direnak: **Goian:** Mariasun Gabilondo, Mari Jose Altuna, Maria Victoria Jauregi, Chelo Prieto eta Itziar Elorza. **Behea:** Mentxu Iglesias (†).

### 1961

Beste erretratu hau herritar batek ekarri digu. **Garbiñe Gorostiza** da erretratuan ageri den neska gazte hori, 1961eko inauterietan. Garai hartan ez zegoen ondo ikusita mozorrotzea. Ez omen zegoen debekatua,, baina gaizki ikusita zegoela esan digute. Garbiñe eta bere lagunak, baina, ausartak izan ziren, eta argazki honetan ikusten den bezala, mozorrotuta irten ziren kalera.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARRE**nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEK ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA

## LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ERAZO IRAGARTZEKO GOB. ERNO. Y. 63/00

ERAZO IRAGARTZEKO GOB. ERNO. Y. 63/00

## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Inauteriak Mendaroko gaztelekuan

Idatzi honen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu pasa den larunbatean, Gaztelekuko Inauteri festaren prestakuntzan burubelarri lanean aritu zen 3. DBHko taldeari (Ane I., Ane A., Inma, Celia eta Xabiri) bereziki, eta baita ekintzan parte hartu zuten gainerako gazte guztiei ere. Jarrera partehartzailea erakutsi zuten guztiek, eta denen artean, ekintza modu egokian burutu genuen eta oso ondo pasatu genuen. Eskerrik asko, eta jarraitu horrela!

### Mendaroko Gaztelekua ☺

### Errigora, 'Eskutik Eskura' olioaren

#### Kanpaina

Asko gara udazkeneko kanpainako keinuaz harago, gure kontsumo ohiturak birplanteatu eta, urrunekoen ordez, urte osoan bertako jakiak kontsumitzeko prest gaudenok. Horretara dator *Eskutik Eskura*, Nafarroa hegoaldeko produktuak herriz herri eta ekoizlearen jatorrizko prezioan eskaintzera, despentsa urte gutzirako betetzeko!

Oraingo honetan Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra ekologikoa (28 euro 5 litrotako botila) eta oliba-olio birjina estra konbentzionala (20 euro 5 litrotako botila) eskatu ahal izango dira. Aurtengoan azken urteetako oliba uzta eskasena izan da, eta horixe da olioaren prezioak gora egin izanaren arrazoia.

Aurten, Elgoibarren ere egongo da aukera Nafarroa hegoaldeko olio jasotzeko. Horretarako olio eskaerak otsailaren 20tik martxoaren 4ra jasoko ditugu eta eskatutakoa ekoizle nafarrek beraiek herrira ekarri ostean, martxoaren 12an, osteguna, arratsaldean egingo dugu banaketa Kultur Etxeko sotoan.

Eskaerak Errigorako webgunetik ([www.errigora.eus](http://www.errigora.eus))

edo [elgoibar.errigora@gmail.com](mailto:elgoibar.errigora@gmail.com) helbide elektronikora idatzita egin daitezke, izen-abizenak, telefono zenbaki eta email kontua jarritz. Hala ere, eskuorriak betez ere egin ahal izango da eskaera eta otsaileko azken zapatuko ferian ere izango da aukera olio dastatu eta eskaera egiteko. Aurrerago zehaztaperen

gehiago emango ditugu. Udazkeneko kanpainak Elgoibar eta Mendaron izan zuen exitoa berdindu eta gaintutuko dugulakoan, on egin!

### Elgoibarko Errigora Lan Taldea ☺

### 'Jata' erleak inauterietan

*Jata* eta erleen inguruko gaia harturik, herri eskolako ikasle eta irakasleek asteartean inauteri-jaia ospatu genuen eskolan bertan. Hasiera batean kalejira egiteko asmoa bagenuen ere, eguraldiagatik ezin izan ginen herrira jaitsi. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu eskolara gerturatu eta jaiari parte hartu zuten senideei.

### Herri Eskola ☺

### Etxeberria alkatea, kastako politikoa

Azken *txapan* pozik agertu zinen kaleko hormak mutu daudelako. Nola ez dira egongo bada, zortzi urte hauetan talde ezberdinen kartelak eta pankartak sistematikoki kentzen jardun baduzue (iragarritako ekitaldien datari begiratu gabe). Mural ederrak ere borratu dituzu. Zure argazkia, berriz, zopaplateran sartu diguzu. BARREnekin haserretu zara ahots kritikoak argitaratu dituelako.

Ondo dakizu honek ez duela esan nahi arazoak konpondu direnik. Presoen eta senideen eskubideak ez dira errespetatzen, edonolako sarekadak jarraitzen dute, herriko neska bat bortxatua izan da atxiloketaldian... bitartean, zuk salaketa mezuak begien paretik kentzen jardun duzu.

Etxe-kanporaketen mehatxuak hortxe dirau. Lerun Txikiko bizilagunak kaleratu eta baserria zabortegi bihurtzeko baimena eman zenuen. Zuen HAPO faraoiko justifikaezina bere 1.300 etxe berri eta lurzoruko okupazio itzelarekin ingurumena ahaztu zuen. Harro egongo zara *fracking* arriskutsuaren aldeko Gipuzkoako Udala bakarria izanda.

Zure "bizikidetz" ereduak kalte gehiegi eragin ditu; zenbat esfortzu, denbora eta diru lapurtu diguzuen herriko eragileoi! Guk ere politikarako zaletasuna daukagu, baina era altruista batean. Zaletasun horregatik zu aberastu egin zara; aldiz, Arnaldo kartzelan



dute. Barne ministroaren jarrera duenari soldata bera dagokiolakoan zaude? Zenbat poltsikoratu duzue zuk eta zure alkateordeak: 1.000.000 euro inguru? Ez da gutxi, gehienontzat krisi garaiak izanda. Lizuna benetan. Udaberriak aire berriak ekar ditzala udaletxera.

**Okil Beltzak** ☺

### Herritar agurgarriak

Maria dut izena eta egoera larri batek behartu nau BARRENEN idaztera. Desesperatuta nago, eta ez dakit zer egin. Gizarte zerbitzuetara jo dut, Caritasera ere bai, baina ez dago lagunduko didaten modurik. Zuon, herritarron, laguntza behar dut, elgoibartarra, ni bizi naizen herrikoena. Egoera kritikoa nago, eta entzun nazazuen behar dut. Diabetesa ere badaukat eta geratzen zaidan bakarra hemen idaztea da, ea norbaitek laguntzen didan.

Nire bikotekidea eta ni langabezian gaude duela bost urtetik. Orain arte, laguntzei esker bizi izan naiz, baina nire esku ez dauden hainbat arazoirengatik kendu egin dizkidate eta inork ez dit laguntzen. Ez gizarte zerbitzuek, ez Caritasek eta ezta senideek ere. Nire alabak bakarrik laguntzen dit, baina berak ere ezin du gehiago, bere etxea eta bere gastuak dituelako. Ate guztiak itxita dauzkat, kale-gorrian gelditzeko zorian nago. 1.900 euroko zorra daukat eta norbaitek entzutea eta laguntzea behar dut, bestela kalean geldituko naizelako.

Lanen bat behar dut lehenbailehen. Beraz, lagundu nahi didanak edo gutxienez entzun nahi didanak jarri dadila nirekin harremanetan eta kontatuko diot nire kasua: 667 015 984 / 603 644 117  
Mila esker, bihotz-bihotzez.

**Maria** ☺

### Umorea bai, baina herritarrekiko betebeharrak lehendabizi

Pasa den astean Gipuzkoako PSE-EEko hautagaiak, inauteriak zirela baliatuz, atez ateko mozorroto ziren, Gipuzkoan martxan dagoen sistema eraginkorraz trufa egiteko. Dударik ez dut, umorea gauza sanoa eta beharrezkoa dela bizitza sano baterako, baina ingurumen osasungarrian bizitzeko herritarren eskubidea zaintzea eta babestea da PSE-EEko arduradun instituzionalen betebeharra.

Hondakinen gaikako bilketa eraginkorra ezinbestekoa da, zabortege kutsakorrak eta errauste plantak baztertu eta herritarrok giro osasuntsu batean bizi ahal izateko. Sistema eraginkorrari burula egin zioten PSE-EEko arduradunek hobe lukete zuzentzen dituzten erakundeetan hondakinen arazoa bideratzea, Gipuzkoako daturik txarrenetakoak ematen ari baitira gobernatzen dituzten herrietan.

Gomendioa: hondakinen arazoa konpontzen denean –herritar askok egunero dihardugu lanean hori errelitate egin dadin–, mozorroto zaitezte nahi

duzuen moduan eta orduan guztiok elkarrekin barre egingo dugu. Bitartean, mesedez, ez erabili atez atekoa gure begirada zuen kudeaketa kaxkarretik aldentzeko *show* moduan.

Zero zabor bidean, ondo ari gara! Atez atekoa aurrera!

**A.Z.** ☺



I. URTEURRENA

## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 21, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## Alboka proiektua abiatu du IMHk

15 ikaslek hartuko dute parte

**J**oan zen astean aurkeztu zuten IMHn Alboka proiektua, eta astelehenean jarri zuten martxan. Hezkuntza arautuan sartzeko zailtasunak dituzten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei laguntzeko egitasmoa da Alboka, hau da, kualifikazio baxua duten ikasleentzat. Elgoibar, Eibar, Mendaro, Azkoitia eta Murtikuko 15 gaztek parte hartuko dute La Caixa Gizarte Ekintzak diruz lagundutako programa honetan. Ikasleen aukeraketa Debabarreneko udaletxeetako gizarte langileen laguntzarekin egin da, eta hautaketa prozesuan Kalexa eta IMHko teknikariek parte hartu dute.

Ikastaroa otsailaren 16tik uztailaren 31 bitartekoa izango da eta enpresetako praktikak irailetik azaroa bitartean egingo dituzte, gainditu duten ikasleek. Formakuntza hiru ataletan banatuta dago: has-teko, lan-aurreko prestakuntza egingo



dute, zeharkako gaitasunak landuz eta hainbat ezagutza ikasiz, esaterako matematikak, bulegotika, lan-orientazioa, ekintzailtza, birziklaia... Bigarren fasean prestakuntza tekniko-industrial izango dute, eta azkenik ikastaroa gainditzen dutenek enpresetan praktikak egingo dituzte. Praktiketarako aukera hainbat

sektoretan izango da: logistika enpresak, fundizioak, forjak, zerbitzu enpresak, automezio enpresak, artisau armagintza enpresak...

Alboka programa praktika onen eredu bezala aurkeztu zuten La Caixa Gizarte Ekintzak Donostian egin zuen proiektuen deialdi publikoan.

## Nafarroako oliba-olioa erosteko kanpaina antolatu du Errigorak

*Eskutik Eskura* kanpaina jarri du martxan Errigorak, Nafarroako hegoaldeko produktuak herriz-herriz eta ekoizlearen jatorrizko prezioan eskaintzeko. Oraingoan Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra ekologikoa (28 euro, bost litroko botila) eta oliba-olio birjina estra konbentzionala (20 euro, bost litroko botila) eskatzeko aukera egongo da. Elgoibarko Errigorak otsailaren 20tik martxoaren 4ra arte jasoko ditu eskaerak. Interesatuak Errigorako webgunetik ([www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)) edo [elgoibar.errigora@gmail.com](mailto:elgoibar.errigora@gmail.com) helbide elektronikora idatziz egin ditzakete eskaerak. Horrez gain, otsaileko azken zapatuko ferian ere kalean egongo dira Errigorako kideak eta egun horretan bertan eskuorriak betez ere egin ahal izango da eskaera. Egun horretan olio dastatzeko aukera ere eskainiko dute. Martxoaren 12an banatuko dituzte olio botilak, Kultur Etxeko sotoan.



## Auzolanerako deia egin du Morkaikok, Zuhaitz Egunerako lurra prestatzeko

Otsailaren 28an Sargoate inguruko lurra prestatuko dituzte Morkaikoko kideek Zuhaitz Egunerako, auzolanean. 8:00etan batuko dira IMHko aparkalekuan, eta eguerdirako itzuliko dira. Izena emateko 636 994 798 (Aitzol) telefonora deitu behar da. Zuhaitz Eguna martxoaren 8an izango da. 10:00etan elkartuko dira Mintxetako aparkalekuan, eta autoz joango dira Otxourtiaraino. Handik oinez egingo dute Sargoate-rainoko bidea, kilometro bat inguru. Parte hartzeko izena ematea komeni da, eta martxoaren 5a izango da horretarako azken eguna.

## Lekua **Pista Beltza**



Elgoibarko Udalak hasi ditu Juan Mugertza kaleko horma zaharra konpontzeko lanak. Artzamendi enpresa da lan hauek egiten ari dena (Trenbide eta San Roke kaleak lotuko dituen igogailu publikoa eraikitzen ari den enpresa bera), eta lan horien baitan, gaur egun dagoen horma kendu, eta horren ordez, aluminiozko barandak jarriko dituzte, hain zuzen ere, udalerriko beste hainbat lekutan jartzen ari diren baranden antzekoak. Ricardo Garatek aditzera eman duenez, Juan Mugertza kaleko horma zaharra kentzeko lana Udalak Trenbide kaleko ingurua txukuntzeko eta hobetzeko bultzatu duen prozesuaren baitan xertatzen da. Gauzak ondo bidean, hil honen bukaerarako edo martxoaren hasierarako bukatuko dituzte obrak.

## Irudia **Txankakuaren zozketa**

Txankakua Merkatari Elkartek egin du Gabonetako errifaren zozketa, eta banatu ditu sariak. 1.800 euro zituen saritan banatzeko, baina hiru saridun ez direnez agertu, sari horiek banatu gabe gelditu dira. Alaitz Quintasek 500 euroko saria jaso du, eta ehun eurokoak ondorengo hauek jaso dituzte: Reyes Sanchezek, Maria Teresa de la Cruzek, Mari Carmen Lizundiak, Mercedes Arriolak, Maria Jesus Gabilondok eta Elena San Martin. Erosketa txeketan jaso dute saria, eta Txankakua elkarteko komertzio-etan gastatu beharko dute.



## **Debegesak enpresa industrialen lehiakortasuna hobetzeko programa jarri du martxan**

Metalen tratamendu eta estaldura jarduerara bideratutako enpresa industrialen lehiakortasuna hobetzeko programa jarriko du martxan Debabarrenean Debegesa Garapen Agentziak. Debegesak dauzkan datuen arabera, eskualdean 56 enpresa daude horretarako, eta 400 lagunek dihardute lanean. Programa honen bitartez, langabezia dauden eta titulazio teknikoa duten (Ingeniaritza Kimikoa, Kimikan lizentziatura, lanbide heziketa ingurune kimikoan...) hainbat lagunek formazioa jasoko dute, ondoren enpresa hauetan lanean hasteko eta enpresentzat interesgarriak izan daitezkeen proiektuak garatzeko. Programa honek ez du inolako kosturik enpresarentzat. Interesa duten enpresak Debegesarekin jar daitezke harremanetan 943 820 110 telefonora deituz.

## **Ekonomiari buruzko jardunaldia antolatu du EAJk biharko**

Debabarreneko EAJk ekonomiari buruzko jardunaldia egingo du bihar, Elgoibarren. *Etorkizun ekonomikoa abiaraziz* jarri diote izena ekitaldiari. Debabarreneko EAJko hautagaiak hartuko dute parte, Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaiarekin batera. 11:30ean izango da, Kultur Etxean.

## **Bertso-bazkaria Mendaron, martxoaren 1ean**

Aingeru Guardako jaien barruan bertso-bazkaria egingo dute Mendaron martxoaren 1ean, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Txartelak salgai daude dagoeneko Txirristaka eta Ormola tabernetan, 25 euroan. Otsailaren 23ra arte egongo da erosteko aukera.



# INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideoak eta argazki gehiago [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)













Rosa Rodero, Pili Zabala eta Jose Miguel Gomez Elozegi biktimak joan zen barixakuan, Elgoibarren.

# SUFRIMENDUAREN TESTIGANTZAK

Elgoibarko Udalak eta Baketik fundazioak antolatutako ‘Bakea eta bizikidetz’ jardunaldien barruan, hiru biktimaren testigantzak entzun ahal izan ziren joan zen barixakuan Elgoibarren: ETak hildako Joseba Goikoetxea ertzainaren alargun Rosa Roderorena eta Francisco Javier Gomez Elozegi Martuteneko kartzelako psikologoaren anaia Jose Miguelena eta GALEk hil zuen Joxi Zabala gazte tolosarraren arreba Pilibena. Nork bere sufrimenduaren berri eman zuen, helburu bakar batekin: injustiziak bi aldeetan egon direla ohartarazteko eta herritarren kontzientziak esnarazteko. Elkar ez errespetatzeak Euskal Herrian “min handia” eragin duela nabarmendu zuten, eta “ausardia” eskatu zieten alderdi politikoei, “behingoz” herritarrek “aspaldi” hasitako bideari heltzeko.

Ainara Argoitia

## Rosa Rodero

Joseba Goikoetxearen alarguna

*“Biktima guztien kontaketak jaso behar dira, noizbait benetako historia idatzi ahal dezaten”*




1 993ko azaroaren 22an hil zuen ETak Joseba Goikoetxea Ertzaintzako sarjentu

nagusia eta EAJko militantea. 42 urte zituen hil zutenean, ezkondua zegoen eta bi seme-alabaren aita zen. Tiroz hil zuten Bilbon. 16 urteko semea eskolara eramatera zihoan auroan, eta semaforo batean gelditu zen unean, bi tiro egin zizkion gizonetako batek. Semea onik irten zen, eta bera Basurtuko ospitalean hil zen handik ordu gutxira.

“Nolabait esateko, ETak Ertzaintzaren

kontra egin zuen lehenengo atentatua izan zen. Ertzaintzaren talde garrantzitsuenetako zuzentzen zutelako hil zuten. Orduetik, gu saiatu gara berak irakatsitakoa betetzen. Etxean beti esaten zigun ezin genuela gorrotz bizi eta gizarte honek aldatu beharra zuela, eta gu beti ahalegindu gara berak markatutako bide hori jarraitzen; azkeneko urteotan arrazoi gehiagorekin gainera”, dio Rosa



Roderok, Joseba Goikoetxea zenaren alar-gunak. Biktima da, ETAREN biktima, baina "ezohiko biktima" dela dio berak, bere senarra "bi bandoen" biktima izan zelako. "ETAk hil aurretik, sarri egon zen nire senarra etakideekin mahai beraren bueltan jarrita, mugaz beste aldean. Horregatik, 1970. urtean ihes egin behar izan zuen, atzetik segika zituelako poliziak. Urtebete egin zuen kanpoan, eta 1973an atxilotu zuten guardia zibilek. Eta jakina, garai hartan ohikoa zenez, torturatu ere egin zuten, ezkutuan alderdi politiko jakin baten gaineko propaganda banatzen aritzeagatik. Epaitu eta kartzelaratu ere egin zuten, eta preso izan zuten Franco hil ondorenera arte. 1977ko Amnistia Legearekin laga zuten

libre". 1980an, gaur egungo Ertzaintzaren aurrekari izan zen Berrozi taldean sartu zen Goikoetxea, eta zuzenean sartu zen gero Ertzaintzaren 1982ko lehen promozio hartan. "Abertzalea zen, eta bi diktaduraren kontra borrokatu zen. Horregatik, beharbada, ez zuen nahi bere seme-alabak gorrotoan bizi zitezen. Bake-egari zen, eta herri honek aurrera egin zezan borrokatu zuen".


Hogeita bi urte badira ETAk senarra hil ziola, baina jakina, ez zaio erraza atzera begira jartzea. Aitortu du mingarria zaiola sufritu duen guztiaz jardutea, baina saiatzen dela bere ahotza entzunarazten, batik bat jende batek ikus dezan biktima guztiak ez dutela berdin pentsatzen: "Biktimen artean bagaude gizarteratzearen alde egiten dugunak ere; aurrera egiteko irrikaz gaudenak".

Biktimak erabili egin direla salatu du, eta baita bazter laga ere "askotan". "93ra arte inork ez zuen biktimez hitz egiten. Inork ez zion gai horri heldu nahi". Bera, baina, zortekoa izan dela esan du, senarrak zuen karguagatik "laguntza handia" jaso zuelako atentatuaren ondorenean. Dena den, hori bera ere momentuko laguntza izan dela nabarmendu du. "96tik aurrera aldatu ziren gauzak, ETA politikariaren kontra egiten hasi zenean. Euren burua arriskuan ikusi zutenean hasi ziren politikari batzuk biktimez kezkatzen eta beste batzuk biktimak erabiltzen".

Gaur, baina, itxaropenez begiratzen dio etorkizunari. "Aro hau baliatu behar dugu elkarrengana hurbiltzeko. Nik ez dut nahi Ge-

## Joseba Goikoetxea

1993ko azaroaren 22an hil zuten



rra Zibileko kontuez gertatzen den moduan gure bilobak hasi behar izatea memoria egiten. Nik neuk egin nahi dut lan hori, eta horretan ahalegintzen naiz. ETA sortu bazen, hein handi batean, Francok pasarazi zizkigunengatik izan zen, garai hartan jende asko desagerrarazi zutelako hemen eta orain ari garelako haien berri izaten, euren bilobek egindako lanari esker".

Autokritika egitea ezinbestekoa dela dio Rosak. Barrura begira jarri eta norberak zer jarrera babestu duen eta zer isildu duen aztertu behar dela, ez duelako uste katedraduna izan behar denik gaizkia eta ongia bereizteko, ezta justua dena eta injustua dena bereizteko ere. Ikuspegia zabaltzeko eskatu dio jendarteari eta ausardiaz jokatzeko alderdi politikoei. "Biktima guztien kontaketak entzun eta jaso behar dira, herri honetan noizbait benetako historia idatzi ahal dezaten. Ez da erraza izango, eta jakina, horretarako historia idatziko duten batzorde objektiboak behar dira, baina gaur gaurkoz ez daukagu halakorik. Gure esku dago gertatu dena ez ahaztea. Ezin dugu utzi ahaztu dadin, hori azkena delako".

## Jose Miguel Gomez Francisco Javierren anaia

*"Ausardia eta adore handiagok jokatu behar dute alderdi politikoei. Has daitezela behingoz mugitzen"*



Martutene espexeko psikologoa eta ELA sindikatuko kidea zen Francisco Javier Gomez Elozegi 1997ko martxoaren 11n ETAk tiroz hil zutenean. Goizean goiz lanera zihoala, garondoan tiro egin zion ezezagun batek eta bertan hil zuen. 37 urte zituen, ez-

kondua zegoen eta 2 urteko alaba zuen. Enpresa-zientzietan diplomatua zen, eta Psikologiako fakultatean Portaera-zientzietan espezialdua. Martuteneko kartzelan egiten zuen lan, baina horrez gain, Euskal Kriminologia Institutuko irakaslea ere bazen, eta Eusko Jaurilaritzaren beka bat tarteko, kartzelafuntzionarioen harrobia izango zena prestatzen ziharduen, espexke politiken inguruko eskuduntza euskal instituzioen esku gelditzen zenerako. Era berean, beste hiru-lau psikologorekin batera, indarkeriak kaltetutakoei laguntzeko erakundea ere sortua zuen,

eta biktima haien artean ertzainak, bizkartzainak eta Jarrai gazte erakunde independentistako jendea ere bazegoen. Francisco hil zuten arte iraun zuen erakunde hark, gero desegin egin baitzen, "beldurragatik".

"Oso pertsona inplikaturik" zen Francisco, anaiaren hitzetan. "Distentzio espazioak sortu zalea zen, eta presoak sakabanatzearen kontra agertu zen publikoki". ETAk anaia hil baino hogeita egun aurretik gertatutako kontu bat ekarri du gogora. Goiz batean gutun anonimo bat jaso zuen Franciscok bulegoan. Ziega jakin batean bere intereseko zer-

bait zegoela idatzi zion norbaitek, anonimoan. Itxura txarra hartu zion, eta anaiari deitu zion. “Larrituta zegoen, baina ez zekien zer egin. Kartzelako zuzendaritzari esanez gero, bazekien preso haien kontrako neurriak hartuko zituztela eta ez zuen nahi, baina beste-tik, barruak esaten zion zerbait bazela gutun haren atzean. Nik abisua emateko esan nion, eta kasu egin zidan. Hainbat ziega miatu zituzten, baina ez zuten ezer topatu”.

Anaia eta konfiantzazko laguna ere bazuen Jose Miguelek Francisco. “Egunero, 22:00etatik aurrera, Telefonía-tarifak asko merketzen zirela baliatuta, luze aritzen ginen telefonoz. Pentsa, beraz, zer izan zen niretzat anaia galtzea, nola eta modu horretan!”, dio. 42 urte zituen berak eta alaba bat zuten emaztea eta biek, eta nabarmendu du, hein handi batean, haien laguntzari esker lortu zuela anaia hil osteko *shock* egoera gainditzea. “Emazteak eta alabak lagundu zidaten testuinguan jartzen gertatutakoa, eta nire berezko izaerak egin zuen irrazionala zena arrazionalizatzen asmatzea”. ETaren biktima izandako beste batzuen lekukotzak entzutea ere oso lasaigarri izan zitzaioala aitortu du, eta baita amaren “jokaera eredugarria” ere.

### Amorrua bai, gorrorik ez

78 urte zituen Gomez anaien amak semea hil ziotenean [gaur, 96 ditu]. “Gure amak zortzi-bederatzi urte behar izan zituen onartzeko semea hil egin ziotela. Beti galde-tzen zidan: ‘Zer gertatu da? Zergatik egin diote hori zure anaiari?’. Hil zutela esatea saihesten zuen beti, ‘eraman egin dute’ eta

‘Jainkoak hala nahi izan du’ esamoldeetan babestuta. Eta nik beti esaten nion: ‘Ama, bere izenez deitu gauzei. Hil egin dute’”. Baina ama horren beraren hitzek ekarri zioten sosegua Jose Migueli. Franciscoren hiltzailea [Fernando Elejalde Tapiari egotzi zioten] atentatua gertatu eta gutxira atxilotu zuten kaleko jantzita inguruko taberna batean zeuden hiru polizia, eta lesioengatik, bi egunera kartzelatik ospitalera eraman zuten, inkomunikatuta artean. “Komunikabideetan irten zen gaia, eta gure amak jakin zuenean honelaxe esan zigun: ‘Batzuk jendea hiltzen eta beste batzuek jotzen... Honek ez dauka irtenbiderik’. Harrituta utzi gintuen amak, eta are gehiago handik hamabost bat egunera gure anaiaren hiltzailea ikustera ospitalera igotzekotan egon zela esan zigunean. Zergatik hil zuen galdetu nahi zion. Amorruek handia zuen, jakina, baina gorrorik ez”.

Bi hilabete behar izan zituen Jose Miguelek berak barruan pilatutako amorrua negar bidez kanporatzeko eta 16 urte, gertatutakoz ozen hitz egiteko. “Ematen zuen indarkeriaren biktima ziren pertsonen ideologia jakin bat ordezkatzeko zutela, mendekuan eta gorroto dosi handitan oinarritutako ideologia sarri askotan, eta ematen zuen, gainera, beste sentsibilitate bat genuenok etsaiaren lagun ginela”. Eman du pausoa, baina, iruditzen zaiolako sufritu dutenen testigantza guztiak entzun behar direla horrelakoak berriro gerta ez daitezen. “Indarkeria erabiltzen duten pertsonen beti dute justifikazio bat, eta hori aberrazio bat da. Galindok eta Rafael Verak Konstituzioa babesteko egingo zuten

## Francisco Gomez

1997ko martxoaren 11n hil zuten



eta nire anaia hil zuenak Euskal Herri librea-go baten izenean. Baina merezi du indarkeria erabiltzeak? Ez. Ezerk ez du justifikatzen indarkeria. Carrero Blanco hil izanak merezi izan zuen? Pentsa zer galdetzen ari naizen! Merezki izan zuen? Bada, ez. Giza-eskubideen urraketa guztiak amaitu behar dira; guztiak, batekoak zein besteak, eta gatazka delako hori ezin da aitzakiatzat erabili. Kana-dan ere izan zuten gatazka eta ez zuten tiroka konpondu”, nabarmen du.

Desegin dadin eskatu dio ETari eta “ausardia eta adore handiagok jokatzeko” alderdi politikoei. “Alderdi politikoek erabiltzen duten hiztegi erasokor hori onartezina da. Has daitezela behingoz mugitzen. Herritarren atzetik doaz beti. Ezin dut ulertu gu, hiru kondiziotako biktimak, gai izatea azkar batean ados jartzeko eta eurek dabiltzan moduan ibiltzea oraindik ere. Herri honek merezi du bakea eta horretarako elkarrengana gerturatu eta hitz egin behar da”. Era berean, babesa eskatu du biktimetzat, bereziki “ahaztuenentzat”. “93. urtetik aurrera, biktimek izan dute aitortza bat, baina ordura artekoek, Pili [Zabala] bezala, isilean bizi izan zuten sufrimendua, bakardadean. Instituzioek ere ez zituzten babestu, eta hori oso da gogorra”.

## Pili Zabala

Joxi Zabalaren arreba

*“Nahi nuke jendeak gogoeta egitea ikusteko zerk egiten gaituen hain axolagabe injustiziekiko”*



Joxi Zabala Artano gazte tolosarra izan zen, Joxean Lasa Arostegi herrikidea-rekin batera, GALen lehen biktima. Urriaren 15eko gauean Baionan bahitu zituz-

ten, eta Donostian torturatu ostean, Alacanten, Busoten, hil zituzten buruan tiroa jota. Hamabi urte egin zituzten desagertuta, haien gorpuak Alacanteko hilerrian identifikatu gabe zeuden bitartean. 1995. urtean identifikatu zituzten haien gorpuzkiak eta handik lau urtera GALen kontra izandako epaiketa bakarria egin zuten Espainiako Auzitegi Nazionalean.

“Gu sei anai-arreba ginen, eta orain, bost gara”. Hasi du bere testigantza Pili Zabalak.

Sei anai-arrebetan bosgarrena da bera (Tolosa, 1968), eta sei urte zaharragoa zuen neba Joxi. Ezinegon handiko nerabe gisa oroitzen ditu Joxi eta haren lagun min Joxean. “Garai hartako testuinguru politiko-sozialak ematen zuen horretarako bidea”. Gazterik hasi zen Joxi Zabala gizarte-talde ezberdinetan militatzen, eta bide horretatik sartu zen politikan ere. 70eko hamarkada zen, eta manifestazioak eguneroko kontua ziren. “Polizia gazte-oi oldartzen zitzairen eta gazteak oldartzen zi-

## Joxi Zabala

GALek desagerrazi eta hildakoa



tzaizkien polizia. Joxi askotan joaten zen manifestazioetara, eta gure amak beti galdeztzen zion: 'Joxi, zertan zabilta?', eta hark beti: 'Ama, lasai egon. Nik badakit'. Gizartea oso polarizatua zegoela nabarmendu du Pilik eta hori inorentzat ez zela ona. "Batetik, ETA zegoen, eta bestetik, beti ezkutatu dena: estatu terrorismoa".

### Atxiloketa eta desagertzea

Joxi eta Joxean Iparraldera errefuxiatu aurreko oroitzapen batek 1981eko otsailera eramanean du bat-batean, Madrilin inkomunikatuta egin zituen hamar egunetan jasan zituen torturen ondorioz hil zen Joxe Arregiren argazkiak publiko egin ziren garairra. "Oso modu tristean bizi izan genituen egun haiek", dio. Urte horretako azarokoa du hurrengo oroitzapena. "Eguerdia zen, eta eskolatik etxera nentorrela etxeko-atarian zain zeuden bi gizonezko nire anaia Joxiren karneta erakusi eta ia atari horretan bizi zen galdetu zidaten. 13 urte baino ez nituen, eta jakina, baietz erantzun nien, gezurrik sekula ez zela esan behar irakatsi zigulako gure amak". Espainiako polizia ziren, eta Joxiren bila ari ziren, lau gazte Tolosako banketxe batean lapurtzen saiatu zirelako. Gazte haie-tako bat harrapatu eta kartzelatu egin zuten, eta beste hirurek alde egin zuten. "Lur jota gelditu ginen, denok dakigulako ezin dela lapurtu, eta gainera, orduan ETA hitza aipatu ez baziguten ere, susmoa bazegoelako ETAkideak izan zirela. Gogoan daukat amak behin eta berriz errepikatu zidala inori ez kontatzeke eta nik, txintxo, hitza bete nuen".

Hurrengo bi hilabetetan zabalatarrek ez zuten Joxiren berririk izan. "Kalean denetarik entzuten genuen. Latza izan zen". Halako batean, baina, gutun bat iritsi zitzaion etxera, esanez Iparraldean zeudela errefuxiatuta bi gazteak, eta nahi izanez gero, etxekoak joan zitezkeela bisitatzen. "Izugarri berri pozgarria izan zen, eta han joan ginen denok Hendaia-ra. Hantxe batu ginen lasatarrak eta zabalatarrak". Hortik aurrerakoa ez zen gozoa izan, baina. "1982an, gau batez, Tolosako gure etxeko atea bota zuten eta guardia zibilak sartu zitzaizkigun, metrailetak eskuan hartuta. Ohean geunden denok, lo, eta altxarazi gintuzten eta gela batean sartu. Gure aita kamioilaria zen eta falta zen etxean, eta anaia zaharrena Kanarietan zegoen, soldaduskan. Ama, eta lau anai-arreba geunden. Galdezka

hasi zitzaizkigun, metrailetakin apuntatzen gintuzten bitartean, baina gu kikilduta geunden. Ahizpa zaharrenak atxilotuta eramateko saioa ere egin zuten. Etxetik joan zirenean, amak berriro esan zigun: 'Ez kontatu. Inork ez du ezer jakin behar'. Joxi bisitatzen joan zirenean, baina, kontatu egin zion Pilik.

Errefuxiatuek esan zieten jabetuta zeudela Espainiako polizia atzetik zituztela. 20 eta 21 urte zituzten Joxi eta Joxeanek. "Gogoan daukat Baionara joateko gure amak izaten zuen ilusioa, baina batez ere, agurraren garrantza oroitzen dut, ama-semeen azken besarkada. Eta amaren galdera. "Joxi, noiz etorriko zara Tolosara?". Hala pasatu zituzten bi urte, harik eta 1983ko urriaren 16an bi euskal gazte desagertu ziren berria iritsi zitzaion arte. "Desagerrarazi egin zituzten".

15 urte zituen Pilik orduan. "Benetan egun latzak" izan zirela esan du, eta "mingarriena" erakunde ofizialeatik mezurik jaso ez izana egin zitzaioala. "Ezker abertzaleko jendeak babestu gintuen, baina hori ez da nahikoa. Halako gertaera bat bizitzea tokatzen zaizunean erakundeen babesa ere behar duzu. PSOEkoen moral bikoitzak min handia egin zigun, baina baita EAJkoenak ere. EAJK urteetan gaizkiarekin izan zuen harreman horrek min egin zidan". Isilean bizi zuten sufri-mendua. Lau egun beranduago, Joxe Inazio Larretxea errefuxiatua bahitzen saiatu ziren Frantziara lau polizia espainiar. "Kartzelatu egin zituzten, baina bi egunen buruan kalean zeuden. Gauza bera gertatu zen gero Segundo Marey bahitu zutenekin, Jose Barri-nuevo Barne ministroarekin eta Rafael Vera Segurtasunerako estatu idazkaria. Bi egun ere ez zituzten egin barruan".

### Herriko giro "jasangaitza"

Isilean eta minez bizi ziren zabalatarrak. Jarria zuten salaketa Baionan, baina gorpuzten aztarrenik gabe, frogarik gabe zeuden. Eta herrian bizitzea bera ere "jasangaitza" zitzaion Piliri. "Ikusten nituenean Joxi eta Joxean askatu zioten kartelak eta entzuten nituenean manifestazioetan Gora ETA militarra oihuka izugarri sufritzen nuen, argi zegoelako bai alde batekoak zein besteak oker zebiltzala. Urte askoan ez naiz euskaldun izateaz harro sentitu. Nahiago nuen Namibiakoa izan". Ezin zuen hitzik egin, baina nahi zuen, ETArekin biktimen adierazpen batzuk ez zitzaizkidalako "zentsudunak" iruditzen.

Eta iritsi zen 1984ko abendua. Auzitegi Nazionaletik deitu zieten Alacanten bi gorpu agertu zirela esanez eta izan zitezkeela Joxi eta Joxeanenak [Antonio Bru Brotons auzi medikuari esker mantendu ziren bi gorpuzkinak baldintza onetan. Autopsia egin zien bi hilotzei, eta bi gorpu torturatu horien atzean zerbait potoloa ezkututzen zela irizita, gordetzeko agindu zuen]. Autobusez joan ziren Tolosatik Busotera, bi gazteak kare bizitan lurperatu zituzten hobia ikustera, eta handik, Alacanteko hilerria gero, gorpuzkinak zeuden lekura. "Oso gogorra izan zen. Ikustea pertsona bat gai dela halako basakeria bat egiteko, pentsatzea bestea garrasika entzunda ere gai dela hil arte torturatzen jarraitzeko...". Gogorra izan zen, baina lasaitzeko ere balio izan ziren gorpuzkinak ikusteak. "Jakitzea, oso gogorra izanda ere, beti da ona, ezjakinarean munduan mamuak besterik ez daudelako. Eta zoritxarrez mamu gehiegi daude oraindik. ETArekin biktimei entzuten diedanean, gogoratzen naiz Joxitaz eta hildakoez eta pentsatzen dut: zenbat galdu dugun elkar ez errespetatzeagatik!".

### GALen kontrako lehen epaiketa

2000. urtean egin zuten epaiketa Madrilin. Enrique Rodriguez Galindo (71 urteko espetxe zigorra), Julen Elgorriaga (71 urte), Angel Vaquero (69 urte), Enrique Dorado (67 urte) eta Felipe Bayo (67 urte) zigortu zituzten, bahiketa eta hilketa delituengatik. Jorge Argote abokatua eta Rafael Vera Segurtasunerako Estatu idazkari ohia ere epaitu zituzten, baina absolbitu egin zituzten. "Denak libre daude, eta hori Auzitegi Gorenak eta Estraburgok ere errudun jo zituela. Hau al da merezi duguna? Eta hori dena eta gehiago bizita ere, nola da posible Barne Ministerioak terrorismoaren biktima garela ukatzea? Gu ez bagara terrorismoaren biktima, zer gara ba? Nahi nuke jendeak aztertzea zerk egiten gaituen hain otzan tiraniarekiko, zerk horren apal aginte ez-legitimoarekiko eta zerk egiten gaituen horren axolagabe injustiziekiko".

# NORMA PRADA

Ertzil baserrikoa



**Orain dela hamar bat urte joan ziren Norma Prada eta Oskar Astigarraga Ertzil baserrira bizitzera. Baserri zaha-**

**rra zen, eta bertan bizi ahal izateko goitik behera berritu zuten guztia. Joan zen barixakuan su hartu zuen baserriak, eta dena erraustu zitzaaien hamar minutuan. Argazkiak eta sutearen bideoa ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)**



**“Bizirik gaude behintzat, eta bizirik gauden artean egingo dugu aurrera”**

**Nola gogoratzen duzu barixaku goiza?**

8:00etan irten nintzen etxetik alaba eskolara eramateko, eta 8:10erako bueltatu nintzen. Etxera iristean kea teilatupetik irteten zela ikusi nuen, eta horrek harritu egin ninduen. Berehala konturatu nintzen baserria sutan zegoela eta senarra esnatzera joan nintzen. Sofan zegoen lo, eta kea arnasten ari zen. Eskerrak hamar minutu bakarrik egin nituela etxetik kanpo, bestela senarra ere kiskalita aurkituko nukeen.

**Zer egin zenuten une horretan?**

Oso urduri nengoen eta ezin nuen ezta telefonoz deitu ere. Autoa hartu eta bizilagunen etxera abiatu nintzen laguntza eske, Olazabal baserrira, eta handik eman genuen abisua larrialdietara, baina suhiltzaileak iritsi zirenerako berandu zen. Dena erreta zegoen. Udaltzainak eta Ertzainak etorri zirenean esan zidaten lehenengo gauza ez dut sekula ahaztuko: galdetu zidaten ea senarrarekin haserre nengoen eta ea nik eman nion etxeari su. Une horretan ezin da horrelakorik galdetu. Anbulantzia etorri zen erizainak, aldiz, oso ondo hartu ninduen eta hark lagundu zidan lasaitzen.

**Lortu zenuten zerbait salbatzea?**

Ezer ere ez. Etxea egurrezkoa zen gehiena, eta teilatupean hezetasunaren kontrako material bat jarrita geneukan, eta oso azkar hartu zuen su. Soinean genuena soilik atera genuen. Erropak, altzariak, alabaren eskolako liburuak... dena galdu dugu. Jaungoikoari ematen diot eskerak bizia salbatu dugulako. Bizirik gaude behintzat, eta bizirik gauden artean egingo dugu aurrera. Ni kolonbiarra naiz, eta Bilbon ditudan lagunek eman dizkirate arropa batzuk.

**Telebistan agertu denez, ez duzue etxeko aseguruirik.**

Halaxe da. Orain dela urte batzuk lanik gabe geratu nintzen, eta nire senarrari ere lan-orduak murriztu zizkieten enpresan. Kalean etxe bat daukat, eta hura ordaintzen gaude oraindik, eta baserriko obrak egiteko eskatu genuen mailegua ere ordaintzen ari gara. Gastuak murriztu behar izan genituen nire alaben ikasketak ordaintzeko eta jateko, eta beste hainbat gauzen artean, etxeko asegurua kendu genuen.

**Zein da zuen egoera une honetan?**

Amaginarrebaren etxean gaude bizitzen. Badaukat kalean etxe bat, baina alokatuta dago, eta orain ezin ditut haiek bidali. Marokoarrak dira, lanik gabe daude, eta hiru seme-alaba dituzte. Badakit zer sufritzen ari diren, eta ezin ditut kalean utzi.

**Hemendik aurrera, zein dira zuen asmoak?**

Nola edo hala baserria berreraikitzen saiatuko gara. Nire aitaginarrebaren osabak utzi zigun baserria oinordetzan, eta lan handia egin genuen han bizi ahal izateko. Baserriak ez zeukan komunik ere, eta dena berritu genuen. Dena erreta ikustea oso gogorra da, baina langileak gara, eta egingo dugu aurrera. Udalera jo dut etxea berreraikitzeke zein pauso eman behar ditudan galdetzeko, baina ez naute oso ondo hartu. Alkatearekin ere hitz egin nuen, baina erakutsi zidan jarrera ez zitzaidan gustatu. Dena dela, euskaldunak zintzoak zarte, eta badakit lagunduko diguzuela. Edozein motatako laguntza etorriko zaigu ondo. Nire telefono zenbakia 620 172 543 da. TVE1eko *Entre Todos* saioarekin harremanetan jarriko naiz, eta dirua biltzeko egitasmoren bat martxan jartzen ere ahaleginduko gara.



## ‘Eta hik zer’ antzerki-forumak itxiko ditu bizikidetzari buruzko jardunaldiak

Asteazkenean izango da, 18:00etan, musika eskolan

**E**ta hik zer izeneko antzerki-forumarekin amaituko dira Udalak eta Bake-tik fundazioak antolatu dituzten bizikidetzari buruzko jardunaldiak. Egungo testuinguru sozial eta politikoan elkarbizitza eta adiskidetzeari sustatu asmoz sortu dute Antzerki-foruma, eta hiru galderen inguruan hausnartzeko aukera eskainiko du ekitaldiak: Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin?

Antzerki-lan labur bat antzeztuko dute aipatutako gaiarekin harremana duten bost istorio laburrekin. Ondoren, ikusleei galdetuko diete kontakizunaren zein puntutan gerta litekeen aldaketaren bat amaiera positiboago batera bideratzeko. Orduan, ikuslegoak istorioaren parte sentitzen hasiko da. Iradokizunak, momentuan, bat-batean asmatuko dira eta azkenean ikusleak eurak izango dira ikusi nahi dituzten aldaketak adierazten dituztenak, taula gainean, aktoreekin batera. Horrela, antzerki-lan bera ikuspegi desberdinetatik kontatu ahal izango da. "Bi orduko esperientzia pertsonal bat da, gure iragan hurbilera begiratu eta etorkizun kolektiboa beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen diguna", azaldu zuen Baketik fun-



dazioko Iker Usonek. Ekimen hau Bakearen Itsasargian (Donostia2016) kokatzen da. Datorren eguaztenean izango da ekitaldia, 18:00etan, musika eskolan. Izena emateko [info@baketik.org](mailto:info@baketik.org) helbidera idatzi edo 943 251 005 telefonora deitu daiteke.

## ‘Pankreas’ antzezlana gaur, Herriko Antzokian



Tartean Teatroak *Pankreas* antzezlana taularatuko du gaur Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Tragikomedia da lana, eta pankreas trasplantea behar duen pertsonaia baten istorioa kontatzen du. Horretarako hildako bat behar izaten da, eta egoera horren aurrean erakutsi beharko dute hiru lagunek zer emateko eta zer gordetzeko prest dauden. Gau zoro batean ezusteko gertaerak bata bestearen ondoren etorriko dira. Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Joseba Apaolaza izango dira aktoreak. Sarrerak 10 euro balio du (Gazte Txartelarekin, 7 euro). Kutxanet bidez eros daitezke aurrez, eta sobratzen badira, lehiatilan ere jarriko dira salgai.

### Martxotik aurrera barixakuko zine-emanaldia 21:30ean izango da

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak jakinarazi du martxotik aurrera barixakuko gaueko zine-emanaldia 21:30ean izango dela, 22:15ean izan beharrean. Ordua aurreratzeko erabakia hartu dute, herritarrentzako ordu egokiagoa izango delakoan, eta aldaketa horrekin Herriko Antzokira jende gehiago joatea espero dute.

Bestalde, asteburu honetan emango duten *Dios mio pero qué te hemos hecho* filma ez dute jatorrizko bertsioan emango.

### Trinitateetako artisau azokarako izena emateko epea zabalik dago

Maiatzaren 31n izango da Trinitate jaietako artisau azoka, eta dagoeneko zabalik dago azokarako izena emateko epea. Feria horretan artisauak bakarrik parte hartu ahal izango dute, eta produktuek artisauak beraiek egindakoak izan beharko dute. Informazio gehiagorako Udaleko Kultura Sailera jo daiteke (943 742 158).

### ‘Hiri asko bere baitan’ erakusketa astelehenean zabalduko dute

Atzo inauguratu zuten *Hiri asko bere baitan* argazki erakusketa, eta astelehenean aurrera zabalik egongo da, martxoaren 1era arte. Sorkuntza, Bilbo eta euskara batzen ditu erakusketa honek. Unai Villena idazle elgoibartarraren, Asier Olabarieta musikariaren eta Aitor Gomez argazkilariairen proiektua da hau, eta Bilboko Udalak antolatutako Ideiak Martxan lehiaketa irabazi zuen iaz. Bilbok ezkatzen dituen Bilbo txikiagoak erakustea da proiektuaren helburua. Astelehenean ostiralera bisitatu daiteke erakusketa Kultur Etxeko sotoan, 18:30etik 20:30era.

## Maite Maiorak hirugarren egin zuen Euskal Herriko kros txapelketan

Gizonezkoetan Ivan Fernandez gasteiztarrak zazpigarren garaipena eskuratu zuen

**E**uripean, eta erabat lokaztutako zirkuitoan jokatu zuten domekan Euskal Herriko kros txapelketa Mintxentan. Gizonezkoen lasterketa nagusia Barakaldon bizi den El Hassan Oubaddi marokarrak irabazi zuen 35:28 denborarekin, baina Ivan Fernandez gasteiztarrak eskuratu zuen Euskal Herriko txapelketaren titulua, lasterketan bigarren egin bazuen ere. Leiha gogorra izan zuten bi korrikalariak lasterketa osoan zehar, eta amaieran, 12 segunduko aldea atera zion marokarrak helmugan. Ivan Fernandezek jarraian lortzen duen zazpigarren titulua izan zen, eta hala, aurrea hartu dio orain arte Euskal Herriko sei txapelketa irabaziak zituen Ivan Sanchez.

Emakumezkoetan, bestalde, erakustaldia eskaini zuen Trihas Gebre Donostian bizi den etiopiarrek. Lehenengo bi bueltak taldean egin zituen, baina hi-



rugarren bueltan eraso jo eta lasterketa guztia bakarrik egin zuen. Maite Maiora mendarorrek laugarren lekuan amaitu zuen lasterketa, baina Euskal Herriko txapelketari dagokionean hiru-

garren postua lortu zuen.

Estreinakoz jokatu da Elgoibarren Euskadiko kros txapelketa. 700 atleta inguruk hartu zuten parte. Argazki gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus) helbidean.

### Euskadiko duatloi sprint txapelketa irabazi du Iñaki Kondek 60-70 urte bitartekoen kategorian

Joan zen larunbatean Euskadiko duatloi sprint txapelketa jokatu zuten Sopelan, eta Iñaki Konde elgoibartarrak jantzi zuen txapela 60-70 urte bitartekoen kategorian. Partaideek bost kilometro egin zituzten korrika, 20 bizikletan eta gero beste 2,5 kilometro korrika.

Sari banaketa ekitaldian Marta San Martin elgoibartarrak hartu zuen parte, eta berak eman zion saria Iñaki Konderi. Marta San Martin nazioarteko epaile ofiziala da, eta Euskadiko Federazioaren ordezkaria.



### Zumaiatik Zarautzera ibilaldia antolatu dute domekarako Morkaikok eta herriko ikastetxeek

Herri Eskolako eta ikastolako gurasoekin elkarlanean Zumaiatik Zarautzera ibilaldia antolatu du Morkaikok domekarako. GR-121 bideari jarraituz egingo dute ibilaldia. Zortzi kilometroko ibilbidea izango da, 300 bat metroko desnibel positiboarekin. 9:20ko trenan har-tuko dute Zumaiara arte, eta kostaldeko mahastietan barrena, oinez joango dira Zarautzera. Buelta trenez egingo dute, eta bazkaltze-ko iritsiko dira Elgoibarrera. Irteera nagusi zein gaztetxoei zuzenduta dago, baina antolatzaileek esan dute umeak ezingo direla baka-riki joan. Interesatuak Herri Eskolan edo Ikastolan eman beharko dute izena.

# Aste Santurako kirol campusa antolatu du Kirol Patronatuak

Martxoaren 20a baino lehen eman behar da izena

**E**lgoibarko Udal Kirol Patronatuak kirol campusa antolatu du Aste Santuko oporraldirako. Martxoaren 30ean eta 31n, eta apirilaren 1ean, 7an, 8an, 9an eta 10ean izango da aurtengo campusa. Zazpi egun horietan, 9:30etik 12:30era, hainbat kirol probatzeko eta praktikatzeko aukera izango dute partaideek. Mintxetako atletismo, padel eta tenis pistak, futbol zelaiak, Olaizagako kantxa eta Ikastolako frontoia erabiliko dituzte futbola, saskibaloia, tenisa, padela, atletismoa eta beste hainbat kirol egiteko. Aurten 2001etik 2007ra bitartean jaiotako hurrek parte hartu ahal izango dute. Patronatuko bazkideek 55 euro ordaindu beharko dituz-



te, eta gainerakoek, 60 euro. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman behar dute izena, otsailaren 23tik martxoaren 20ra.

## Eskalada ikastaroak antolatu dituzte martxorako

Kirol Patronatuak eskalada ikastaroak eskainiko ditu martxoan, ume zein helduentzako. Iosu Merino izango da irakaslea, eta eskolak Kiroldegiko rokodromoan eskainiko dituzte. Datorren astelehenean, hilaren 23an, interesatuekin elkartzeko dira antolatzaileak rokodromoan bertan. 18:00etan jarri dute umeentzako hitzordua, eta 19:00etan batuko dira helduekin. Bakoitzaren maila neurtzeko frogak egingo dituzte, taldeak antolatu ahal izateko. Interesatuak izena eman beharko dute Kiroldegiko harrera bulegoan.

## Morkaikoren bazkide kanpainan parte hartzeko aukera badago oraindik

Morkaikok bazkide kanpaina jarri zuen martxan urtarirlean, eta dagoeneko txartelak jasotzeko aukera dagoela gogorarazi dute arduradunek. Astelehen eta ostegunetan egoten da zabalik Morkaikoren lokala, 19:00etatik 20:00etara. Arduradunek esan dute oraindik badagoela bazkide egiteko aukera, eta bide batez, Morkaikoko bazkide izateak dituen abantailak gogoratu dituzte: Morkaikoren mendi irteera eta ekitaldietan beherapenak izaten dituzte, eta mendiko materiala doan alokatzeko aukera dute. Egoitzako liburutegiko liburu eta aldizkariak erabili eta etxera eraman ahal dituzte, eta 2015. urtean gainera, Morkaikoren bazkideek %10eko deskontua izango dute mendi materiala erosterakoan, Iriondo Kirolak, Astigarraga Gys Sport, Uzuri optika, Ptxintxu liburudenda eta Gobike bizikleta dendan.

18 urtetik beherakoek 4 euro ordaindu beharko dute urteko kuota, eta gainerakoek, 9 euro. Interesatuak 943 740 297 telefonora deitu edo [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) helbidera idatzi dezakete.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Tolosa 2 – Elgoibar 1 (Jub. A)  
Elgoibar 8 – Anaitasuna 0 (Lehen. inf.)  
Aloña Mendi 1 – Elgoibar 7 (Inf. Txiki)

### ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 26 – Pulpo 17 (Sen. mut.)  
Kukullaga Elg. 20 – Tecnifuelle Elg. 19 (Kad. nesk.)  
Deca Elg. 31 – Ereintza 29 (Kad. mut.)  
Aiala B 18 – Cometel Elg. 14 (Inf. nesk.)  
Txarriduna Elg. 35 – Zarautz 28 (Inf. mut.)  
Amenabar B 30 – Murgil Elg. 12 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 21

11:30 Elgoibar – Arrasate (Kad.)  
16:30 Haundi – Real Union (Ohorezko erreg.)  
18:30 Elgoibar – Intxurre (Erreg.)

#### Domeka, 22

11:20 Elgoibar – Zumaiako (Aleb.)  
12:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Aleb.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 21

10:00 Pneumax Elg. – Leizaran (Aleb. nesk.)  
11:30 Deca Elg. – Bidasoa (Kad. mut.)  
13:00 Lauko Elg. – Basauri (Sen. nesk.)  
17:45 Tecnifuelle Elg. – Zuazo (Kad. nesk.)  
19:15 Beristain Elg. – Ormaiztegi (Jub. mut.)  
Domeka, 22  
9:30 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)  
10:30 Sukia A Elg. – Pulpo (Aleb. nesk.)  
11:30 Sukia B Elg. – Usurbil (Aleb. nesk.)

### PILOTA (Ikastolan)

#### Barizakua, 20

20:30 Lagunak – Loiolatarra (2. mailako nag.)

## Lilatoira joateko autobusa

Mintxeta Atletismo Taldeak martxoaren 1ean Donostian izango den Lilaton lasterketarako autobusa antolatu du. [mintxeta@mintxeta.com](mailto:mintxeta@mintxeta.com) helbidera idatzita eman behar da izena.

## Emakumeen arteko futbol partida, Kalegoen plazan

Emakumearen Egunaren harira, emakumeen arteko futbol partida berezia antolatu du CD Elgoibarrek. Kalegoen plazan izango da, martxoaren 7an, eta 14 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko [cde@cdelgoibar.com](mailto:cde@cdelgoibar.com) helbidera idatzi behar da. Bide batez, 2004tik 2006ra jaiotako neska animatu nahi dituzte futbol eskolara.

LANA

ESKAERA

- Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo haurrak zaintzeko. Interna lan egiteko prest. ☎ **640 226 895**
- 50 urteko emakumea lan bila. Euskal Herrikoa. sukaldari laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile.... Esperientzia fruta-saltzaile bezala jende aurrean. ☎ **667 015 984 / 603 644 117**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko interna moduan. ☎ **636 976 515**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak ditut. ☎ **680 808 125**
- Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest, arratsaldez edota gauzez. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 651 098**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 363 056**
- Gizona pertsona helduak zaintzeko edota sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. ☎ **631 235 925**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **677 259 560**

- Emakumea etxeko garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 423 493**
- Emakumea etxeko lanak egin edota pertsona helduak zaintzeko prest, orduka edo jardun osoan. ☎ **943 901 752 / 638 338 816**
- Gizona pertsona helduak zaintzeko edota eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ **632 584 082**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **632 143 239 / 628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo umeak zaintzeko. Interna ere egingo luke lan. ☎ **631 681 516**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **633 236 528**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 418 130**
- Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, DBH, LH, ekonomia, kontabilitatea... Esperientzia. Talde txikiak. ☎ **666 042 710**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ **626 914 904**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**

- Emakumea eskaintzen da gauzez adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. ☎ **630 410 294**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Umeak eta adinekoak zainduko nituzke. ☎ **634 640 588**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldeko lanetarako. ☎ **606 354 982**
- Gizona eskaintzen da lanerako. Edozein lan egingo nuke. sukaldeko lanetan eskarmentua daukat. ☎ **631 974 442**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **603 743 240**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia sukalde languntzaile lanetan eta nagusiak zaintzen. ☎ **688 682 398**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Umeak zein gurasoak zaintzeko, baita interna moduan ere. ☎ **696 862 544**

- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Prezio negoziagarria da. ☎ **660 55 692**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar erdigunean. ☎ **632 143 239**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. Handia. Bikotea eta hiru seme-alaba gara. ☎ **676 602 481**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **677 259 560**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **606 354 982**

BESTELAKOAK

- Spaniel Breton arrazako txakurra oparitzen da. 6 bat urte ditu. Oso lasaia eta esanekoa. Ez du ehizarako balio. ☎ **943 740 628**
- Eibarren kafetegia traspasatzen da, zentruan. ☎ **659 377 095**

OSPAKIZUNAK

- Txikitan bote-boten jolasten zenuen eta oroitzen hoiak gogoratzea nahi dozu? Ubitarten jai, hazi, bizi edoeta jolastu nahi dezu? Animatu bazkaltzera. Bazkaria otsailaren 28an izango da Txariduna jatetxean, eta joan nahi duenak 35 euro ingresatu behar ditu kontu korronte honetan: 3035 0007 21 0070703294. Harremanetarako. *boteboteubar-te@gmail.com*



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Jakin nahiko nuke etxe bat salerosteak zer gastu suposatzen duen?**

Etxea erostean hainbat gastu eta zerga ordaindu beharko dituzu. **Notaritzea-minuta:** Emandako zerbitzuen-gatik eta egindako lanengatik notarioak egiten duen faktura da. **Erregistro-minuta:** Etxea erosi izanaren eskritura erregistratzeagatik Jabetza-erregistratzaileak egiten duen faktura da. **Gestoria-minuta:** Etxea erosteko orduan kudeatzaileak egiten dituen tramiteengatik egiten duen faktura da. Hala ere, gastu hori saihestu zenezake zuk tramite horiek zuk zeuk eginda edo notaritzan eskatuta. Ordaindu beharreko zergen artean, gainbalioarena ordaindu behar izaten da [Ondarea subjektu batetik beste batera igarotzean agerian jartzen den irabazi errealeri esaten zaio], eta legeak dio hori saltzaileari dagokiola ordaintzea. Horren zenbatekoa etxea dagoen herriaren arabera izango da. Erosleak ordaindu beharreko zergen artean ondorengoak daude. **BEZa.** Eraikuntza berriko etxebizitza erostean ordaindu behar den zerga da. Salmenta prezioaren %10eko BEZa ordaindu beharko du. **Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga:** Eraikuntza berriko etxea denean ordaintzen da zerga hau. Normalean %1-%1,5 artekoa izaten da. **Ondare garestien-eskualdaketen gaineko zerga:** Etxebizitza bigarren eskukoa bada ordaindu beharreko zerga da. Ordaindu beharreko kopurua aldatu egiten da batetik bestera, baina normalean %6-10 artekoa izaten da. Bukatzeko, saltzaileak kontuan hartu beharko du ondare-irabazia zenbatekoa duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

**AHOLKUA:** *Etxebizitza baten salerosketan, erosleak eskubidea dauka notarioa aukeratzeko, eskritura publikoa idatzi dezan.*

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** *Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*





• Zorionak, **Erik**, joan zen astean 5 urte egin zenituelako. Familiako-en partez, eta bereziki, Uxue eta Agurtzaneren partez.



• Zorionak, **Eneritz**, as-telehenean 5 urte bete-ko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Maialen**, domekan 9 urte egin zenituelako. Muxuak familiako guztien partez, eta bereziki Asierren partez.



• Zorionak, **Ibai**, otsailaren 19an urteko bat bete zenuelako. Muxu handi bat familiako guztien partez, eta bereziki Ane, Jare, Naia eta Aratzen partez.



• Zorionak, **Noa**, 4 urte handi betetzen dituzulako gaur! Patxo potolo bat etxeko guztien partez, maitea.



• Zorionak, **Naroa**, zure urtebetetzean. 11 mila muxu handi familiako-en eta bereziki, Galderren partez.



• Zorionak, **Helenka**, Etxeko guztien partez, oso ondo pasa, printzesa.

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

<p><b>PREZIOAK</b></p> <p>Erretratu bakarreko agurra: <b>4'50€</b></p> <p>Argazki bikoitza: <b>7€</b></p> <p>Hirukoitza: <b>9€</b></p> <p>Hiru lagunetik gorako taldeak: <b>15€</b></p>	<p><b>ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK</b></p> <p>Erretratu bakarreko agurra: <b>3'50€</b></p> <p>Argazki bikoitza: <b>6€</b></p> <p>Hirukoitza: <b>8€</b></p> <p>Hiru lagunetik gorako taldeak: <b>12€</b></p>	<p>Argazkiak <b>eguzten eguerdia (12:00etarako)</b> baino lehen ekarri behar dira</p> <p>BARRENeko bulegora,</p> <p>edo <a href="mailto:barren@elgoibarkoizarra.com">barren@elgoibarkoizarra.com</a></p> <p>e-postara bidali.</p>
---	--	---

Otsailaren 23an, astlehena, **yoga tailerra**, 17:30etik aurrera.

**Aste Santuko ekintza bereziak** antolatzeko asanblada garaia otsailaren 25ean hasiko da.

# ikastolan

denok gara

[www.elgoibarikasola.eus](http://www.elgoibarikasola.eus) Tel: 943 744441

*eskerrik asko, gurean izena eman duzuen guztioi!*

## 20 barixakua

### Antzerkia

20:30 'Pankreas'

Tartean teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 21 zapatua

### Politika

11:30 Ekonomia jardunaldia

EAJk antolatuta, Kultur Etxean.

## 23 astelehena

### Argazki erakusketa

18:30 'Hiri asko bere baitan'

Kultur Etxeko sotoan.  
Martxoaren 1era arte.

## 24 martitzena

### Literatura

18:00 Tailerra

Haizeak antolatuta literatura tailerra egingo dute, Udal Liburutegian.

## 25 eguaztena

### Bizikidetza

19:00 Antzerki jardunaldiak

Musika Eskolan.

### BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
20 Fernandez 21 Yudego 22 Yudego 23 Oruesagasti 24 Barrenetxea 25 Ibañez 26 Garitaonandia 27 Etxeberria	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Oruesagasti** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## ZINEA

(HERRIKO ANTZOKIAN)



«Dios mío, pero qué te hemos hecho!»

21, zapatua: 19:00 / 22:15  
22, domeka: 19:00  
23, astelehena: 21:30

«Dos días, una noche»  
(Ongarri zinekluba)

26, eguena: 21:30

I. URTEURRENA


## BITTOR ALBERDI ELORZA

"Patxillo"



*Horrenbeste gauza nahi esan  
eta ezin hain hitz gutxitan.  
Izugarri botatzen zaitugu faltan  
eta beti zaitugu gure bihotzetan.  
Ez dugu nahi agur esan,  
horrela beti zaitugu gure artean.*

Familiakoak



2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 21ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.

oztopoen gainetik  
EUSKARAZ  
Bizuko  
gara



**Manifestazioa**  
Otsailaren 28an, Donostian  
17:30ean, Gipuzkoa Plazan



EHUSKARAREN GIZARTETIK ERABUNDIAK  
KONTSEILUA

administradores

Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Finanzas  
Euzkoako Finantza Administrazioaren  
Bazterre Kontseilua

**NORFO S.L**

ASESORAMIENTO DE EMPRESAS



## 24 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

ERATZEA

FUSIOA

SOZIJATEEN ERATZEA

ERREGISTROETAKO TRAMITEAK (MERKATARITZA-JABETZA)

AHOLKULARITZA:

LAN-AHOLKULARITZA

AHOLKULARITZA-FISKALA

KONTABILITATE-AHOLKULARITZA

ENPLEGU-ERREGULAZIO ESPEDIENTEAK

PENTSIOAK: ERRETIROA-BALIAEZINTASUNA

ALARGUNTZA-UMEZURTZ GELDITZEA

DIRU-LAGUNTZAK

ENPRESAK

LANGILEAK

AITORTZAK:

ZERGAZ

HONDASUNAK

SOZIJATEAK

OINORDEZAK

KUDEAKETAK:

FORU OGASUN ETA OGASUN ESTATALA

GIZARTE SEGURANTZA

FORU ALDUNDIAK

## ROSA M<sup>a</sup> PINTADO

Etxaldean Administrazioaile - 749 kolegiatu zenbakiduna

HOGEI URTE BAINO GEHIAGOKO

ESPERIENTZIA PROFESIONALA

ETXALDEEN ADMINISTRAZIO-GRADUAN ALCALA DE  
HENARESEKO UNIBERTSITATEAK EAE-N, KANTABRIAN ETA  
ERRIOXAN DAUKAN ARDURADUNA 1998TIK HONA

INDUSTRIGUNEEN KUDEAKETA

KONPENTSAZIO BATZORDEAK

PORTALEKO KONTUEN KUDEAKETA

AURREKONTUEN AZTERKETA

OBREN KUDEAKETA ETA GAINBEGIRATZEA

HORNITZE KONTRATUEN EGIAZTATZEA

KONTRATU-EGITEAK

ORDAINKETA, KOBRAZTEEN ETA ZORDUNEN ZAINKETA

**LANERAKO GERTU URTEKO 365 EGUNETAN.  
KUDEAKETA SERIOA, ZINTZOA ETA PERTSONALA.  
ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GAINEKO INFORMAZIOA.  
AKORDIOEN INGURUKO LEGE-AHOLKULARITZA.  
BITARTEKARITZA LANAK.  
BEHAR BESTE EZOHICO BILERA.**